

17.02 > 20h  
Salle polyvalente  
Ordiarp

19.02 > 17h  
Théâtre Michel-Portal  
Bayonne

# LAU SASUAK

## LES QUATRE SAISONS BASQUES

Les Quatre Saisons de Vivaldi  
aux couleurs basques

PROGRAMME DE SALLÉ  
KONTZERTUAREN PROGRAMA

P

S

IPARRALDEKO  
ORKESTRA ORCHESTRE  
DU PAYS  
BASQUE

B

[WWW.OSPB.EUS](http://WWW.OSPB.EUS)

Rejoint par quatre musiciens traditionnels d'Euskal Herri, l'ensemble à cordes de l'Orchestre Symphonique du Pays Basque - Iparraldeko Orkestra propose une version originale des *Quatre Saisons* de Vivaldi empreinte de couleurs basques !

Un mariage réussi entre musique savante et musique traditionnelle !

## PROGRAMME

### LAU SASUAK

Antonio Vivaldi  
*Les Quatre Saisons op.8*  
Pour violon solo, ensemble à cordes  
et instruments traditionnels basques.

*Le Printemps*  
Allegro - Largo - Allegro

*L'Été*  
Allegro - Adagio - Presto

*L'Automne*  
Allegro - Adagio molto - Allegro

*L'Hiver*  
Allegro non molto - Largo - Allegro

Arrangements : Marina Beheretche

Euskal Herriko lau herri musikariek, Iparraldeko Orkestraren hari-instrumentu taldeak Vivaldiren *Lau Sasuak* obraren bertsio berria proposatuko du, euskal kutsu batekin!

Musika kultuaren eta musika tradizionalaren arteko uztartze bikaina!

## PROGRAMA

### LAU SASUAK

Antonio Vivaldi  
*Lau Sasuak op.8*  
Biolin solista, hari-instrumentu talde eta euskal instrumentuendako egina.

*Udaberria*  
Allegro - Largo - Allegro

*Uda*  
Allegro - Adagio - Presto

*Udazkena*  
Allegro - Adagio molto - Allegro

*Negua*  
Allegro non molto - Largo - Allegro

Moldaketak: Marina Beheretche



## LAU SASUAK

Concertos les plus célèbres de l'immense production de Vivaldi, *Les Quatre Saisons* furent inspirées par des poèmes en langue italienne évoquant le déroulement des saisons. Très populaires du vivant de leur auteur, elles firent l'objet de nombreux arrangements, en particulier en France. Dès 1739, Nicolas Chédeville en tira *Les Saisons amusantes* pour flûtes, vielle et musette.

Ce concert propose ici une version originale des *Quatre Saisons* de Vivaldi, imaginée par Marina Beheretche :

« *Les descriptions, les images et les scènes évoquées par Vivaldi dans ses poèmes sont si proches des situations que l'on vit au Pays Basque (les fêtes de village, la chasse, le quotidien des bergers, des paysans, la nature très présente et influente, les hivers au coin du feu...) qu'il nous a semblé évident de revisiter ou plutôt d'aborder ces quatre célèbres concerti avec notre sensibilité en y apportant une empreinte « euskaldun ».*

Cette version étonnante associe des instruments traditionnels basques (*ttun ttun, txirula, txalaparta, cloches, pandero*) aux instruments à cordes plus classiques. En miroir aux poèmes qui ont inspiré Vivaldi, le bertsu *Lau Sasuak*, poème improvisé en son temps par Louis Ligetx, sert de fil conducteur à ces Saisons basques. Chantés ou déclamés, les vers du poète souletin introduisent chaque concerto ou en ponctuent le déroulement.

Enrichie au gré des mouvements de sonorités et de rythmes traditionnels basques (la *txalaparta* renforce la violence de l'orage ; la danse des nymphes et des bergers se mue en fandango au son du *pandero*...), cette version des *Quatre Saisons* de Vivaldi, permet, à travers un regard « local » empreint d'admiration et de respect, de marier avec brio l'univers de la musique dite « classique » à celui de la musique traditionnelle de notre territoire.

# R

## LAU SASUAK

Vivaldiren ekoizpen biziki handiaren kontzerturik ezagunenak dira *Lau Sasuak*. Urteko lau sasoi iragatea aipatzen zuten italiar poemek inspiratu zituzten. Musikagilea bizi zelarik jadaneko arras ezagunak ziren, eta gero moldaketa anitz izan ziren, bereziki Frantzian. 1739an, Nicolas Chédeville musikagileak flautentzako, bielarentzako eta xirolarruentzako *Les Saisons amusantes* sortu zituen.

Kontzertu honetan, Marina Beheretchek irudikaturiko Vivaldiren *Lau Sasuak* obraren bertsio berria proposatuko da:

« *Vivaldik bere poemetan aipatzen dituen deskribapenak, irudiak eta eszenak hain hurbil dira Euskal Herrian bizi diren egoeretarik (herriko bestak, ihizia, artzainen eta laborarien eguneroko bizia, arras presente eta eragin handikoa den izadia, supazterrean pasatako neguak...), non begi bistakoa iruditu baitzitzaigun lau kontzertu famatu horiek gure « euskaldun » sentsibilitatearen arabera jotzea edo moldatzea ».*

Bertsio harrigarri honek euskal instrumentu tradizionalak (*ttun ttuna, txirula, txalaparta, ezkilak, panderoa*) eta hari instrumentu klasikoagoak uztartzen ditu. Vivaldiren inspirazio iturri izan ziren poemen ispilu den *Lau Sasuak* bertsoa, bere garaian Louis Ligetxek inprobisaturiko poema, euskal lau urtaro horien hari nagusi gisa baliatzen da. Zuberotar poetaren bertsoak kantatuak edo deklamatuak dira, eta kontzertu bakoitza baino lehen edo gero entzuten dira.

Euskal ozentasun eta erritmo tradizionalen mugimenduen arabera aberastua den Vivaldiren *Lau Sasuak* obraren bertsio honek (*txalapartak ekaitzaren bortiztasuna indartzen du; panderoaren soinuak ninfen eta artzainen dantza fandango bilakatzen du...*), mirespen eta errespetuz beteriko « tokiko » behako baten bidez, gure lurraldeko musika klasikoaren eta tradizionalaren munduak ederki uztartzeko ahala ematen du.

## Les Quatre Saisons de Louis Ligetx (1901-1940)

Quand les plus belles fleurs éclosent  
Le printemps a la parole une rose à la main,  
Et il chante parmi les oiseaux  
Car il n'y a de plus belle saison

L'été lui répond : reste donc à ta place  
Tu es bien jeune pour fanfaronner  
As-tu la moindre chose à manger  
Le blé est mûr dans mon champ

L'automne parle avec la voix du vent  
Vous vous vantez mais la fortune est mienne,  
Je me nourris des meilleurs fruits,  
Venez donc goûter à mon bon vin

L'hiver répond : longue est ma barbe  
Votre museau va geler à nouveau  
Me voici venu réparer vos fautes  
Recouvrant la terre de virginité.

## Louis Ligetx-en Lau Sasuak (1901-1940)

Lili ederrenak jelki direnean,  
Bedatsea mintzo da arrosa esküan,  
Bai eta kantüz ari txorien artean,  
Sasu ederragorik ez beita urtean

Üdak arrapostüa: jar hadi heinean,  
Gaztetto behiz eta ez sar ürgüllüan  
Badüka jatekorik deus ere etxean  
Ogiak zohi dütük ene alorrea

Aize herots bateki mintzo larrazkena  
Züek espantü bena nik diat fortuna  
Früta hoberenetan haütatzen diat jana  
Tziauste txesta dezagün ene ardo hona

Negüak ihardetsi: lüze diat bizarra  
Freskatüren zaizüe orano sudürra  
Horra nük züen hütsten orai lamatzera  
Birjinitate batez gordatzen diat lürra.

## MARINA BEHERETCHE

### Soliste

Depuis ses dix-neuf ans, Marina Beheretche a successivement occupé les postes de co-soliste de l'Orchestre de Chambre de Toulouse et de premier violon au sein du Quatuor Arranoa. En 2015, elle est nommée violon solo de l'Orchestre du Pays Basque - Iparraldeko Orkestra.

Sa discographie compte plusieurs dizaines d'enregistrements, souvent salués par la critique (Diapason, Resmusica, Classica...). Récemment elle a produit *Lau Sasuak* (2016) et *Aztarnak* (2022).

Amoureuse de la musique de chambre, elle est cofondatrice du Collectif Ezekiel avec lequel elle mène de nombreux projets. Son goût pour le partage et l'éclectisme l'emmène aussi à collaborer avec des artistes aux diverses influences : le rockeur Rüdiger, le virtuose des flûtes Mixel Etxekopar, la danseuse et peintre Arantxa Lannes...

Très investie avec la jeune génération, Marina enseigne au Conservatoire Maurice Ravel Pays Basque depuis 2013.



## MARINA BEHERETCHE

### Solista

Hemeretzi urte zituenek geroztik, ondoz ondo bete ditu Okzitaniako Tolosako Ganbara Orkestraren ko-bakarlari lanpostua eta lehen biolin lanpostua Arranoa laukotean. 2015ean, Iparraldeko Orkestraren biolin bakarlaria izendatu zuten.

Bere diskografian badu hainbat hamarkada grabaketa, maiz kritikak ongi hartuak (Diapason, Resmusica, Classica...). Berrikitan, *Lau Sasuak* (2016) eta *Aztarnak* (2022) egin ditu. Ganbara musika maite duenez, Ezekiel taldearen sortzaileetarik da eta talde horrekin hainbat proiektu darama. Partekatzea eta eklektizismoa ere gustuko dituenek, hainbat eraginpeko artistekin aritzen da elkarlanean: Rüdiger rock musikariarekin, Mixel Etxekopar xirulari birtuosoarekin, Arantxa Lannes dantzari eta margolariarekin ...

Belaunaldi berriarekin azkarki engaiatua, Marina Maurice Ravel Iparraldeko Kontserbatorioan aritzen da irakasle 2013. urteaz geroztik

### COMPOSITION DE L'ENSEMBLE

#### >> Soliste

Marina Beheretche

#### >> Premier violon

Aurélia Lambert  
Delphine Labandibar  
Marie-Hélène Béridot

#### >> Second violon

Arnaud Aguerarray  
Patrick Prunel  
Laura Prieu

#### >> Violon alto

Sandrine Guedras  
Aurélien Grais

#### >> Violoncelle

Yves Bouillier  
Emmanuelle Bacquet

#### >> Contrebasse

Marin Béa

#### >> Xirula / ttuntun

Mixel Etxekopar

#### >> Pandero

Patrik Larralde

#### >> Txalaparta

Paxkal Indo  
Paxkalin Chabagno

### TALDEAREN OSAERA

#### >> Solista

Marina Beheretche

#### >> I. Biolina

Aurélia Lambert  
Delphine Labandibar  
Marie-Hélène Béridot

#### >> II. Biolina

Arnaud Aguerarray  
Patrick Prunel  
Laura Prieu

#### >> Biola

Sandrine Guedras  
Aurélien Grais

#### >> Biolontxelo

Yves Bouillier  
Emmanuelle Bacquet

#### >> Kontrabaxua

Marin Béa

#### >> Xirula / ttun ttuna

Mixel Etxekopar

#### >> Panderoa

Patrik Larralde

#### >> Txalaparta

Paxkal Indo  
Paxkalin Chabagno



## LES INSTRUMENTS TRADITIONNELS BASQUES

### **Txirula** (famille des aérophones) :

La *Txirula* est une flûte droite à trois trous. Elle est le plus souvent fabriquée en buis et a un son aigu. Le *Txirulari* joue de la txirula avec une seule main, ce qui lui permet de frapper sur les cordes du *ttun ttun* (tambourin à cordes), avec son autre main. La txirula est utilisée pour accompagner des danses et des chants. Elle occupe une place privilégiée dans la province de Soule.



### **Ttun ttun** (famille des cordophones) :

Le *ttun ttun* (*danburia*) est un tambourin à cordes composé d'une longue caisse de résonance en bois sur laquelle sont tendues le plus souvent six cordes (accordées à la tonique et à la quinte). Cet instrument peut prendre des formes très différentes suivant le lieu où il est pratiqué et sa fonction. Le musicien frappe les cordes à l'aide d'un *makila* (mailloche en bois entourée d'une peau). Le *ttun ttun* apporte une dimension rythmique et harmonique à la musique.

### **Pandero** (famille des membranophones) :

Le *pandero* est un tambour sur cadre présent sous différentes formes dans de nombreuses cultures traditionnelles. Il est très utilisé au Pays Basque pour accompagner des instruments mais aussi la voix. Ces dernières années, nous le repérons souvent aux côtés de l'accordéon diatonique « esku soinu », sous sa forme ronde avec cymbalettes. Nous appellerons *trikitixa* le binôme composé d'un *triki* (*esku soinu*) et d'un *pandero*.

### **Txalaparta** (famille des idiophones) :

La *txalaparta* est composée de plusieurs planches de bois posées à l'horizontale sur un support quelconque (tréteaux...). Un matériau isolant (parfois des feuilles de maïs) est installé entre les planches et le support. Deux musiciens utilisent quatre *makila* de bois courts (deux bâtons chacun) pour frapper les planches, à la verticale, le plus souvent de manière improvisée mais en suivant des codes bien précis. La *txalaparta* était à l'origine liée à la préparation du cidre et à des moments festifs.

En partenariat avec Bayonne dans le cadre des Dimanches en musique et Ordiarp. Présentation des œuvres - Julie Charles, professeure de culture musicale au Conservatoire Maurice Ravel Pays Basque, avec la participation de Marie Bidart, coordinatrice du département des musiques traditionnelles / Conception - OSPB et Service culturel et communication / Régie de l'Orchestre - OSPB et service technique / Images - ©Iparraldeko Orkestra et ©S.Bellocq - Création graphique : Tactacom

## EUSKAL INSTRUMENTU TRADIZIONALAK

### **Txirula** (aerofonoen familia):

Txirula (txülüla, txistua) hiru ziloko flauta zuzena da. Ardurenean, ezpelarekin egiten da eta soinu zorrotza du. Txirulariak esku bakarrekin jotzen du txirula, eta, hola, beste eskuarekin ttun ttunaren sokak jo ditzake. Txirula joz dantzatzen eta kantatzen da, maiz. Zuberoan, adibidez, instrumentu arras inportantea da.



### **Ttun ttuna** (kordofonoen familia):

Ttun ttuna (*danburia*) zurezko erresonantzia kaxa luze batez osaturiko hari danbolina da, eta honen gainean sei soka tinkatu ohi dira (tonikan eta bostunean akordaturik). Musika tresna horrek oso forma desberdinak har ditzake, erabiltzen den lekuaren eta bere funtzioaren arabera. Musikariak makila batekin (azal batez inguratutako zurezko baketa bat) jotzen ditu sokak. Ttun ttunak alderdi erritmiko eta harmonikoa ematen dizkio musikari.



### **Txalaparta** (idiophonoen familia):

Txalaparta euskarri baten gainean - adibidez, xibaleak - horizontalki ezarritako egurrezko taula batzuek osaturik da. Material isolatzaile bat - batzuetan, arto hostoak - ezartzen da egurrezko taulen eta euskarriaren artean. Bi musikariek zur laburreko lau makila erabiltzen dituzte (bi makila bakoitzak) egurrezko taulak jotzeko, bertikalki, ardurenean molde inprobisatuan, baina arras kode zehatzei jarraikiz. Hastapenean, txalaparta sagarnoaren prestaketa eta besta mementoetan jotzen zen.

### **Panderoa** (menbranofonoen familia):

Panderoa kultura tradizional anitzetako koadro-danbor bat da. Euskal Herriaren anitz erabiltzen da musika tresnekin batera jotzeko, baina baita ahotsarekin ere. Azken urteetan, maiz, akordeoi diatonikoarekin batera entzun daiteke, borobil itxuran, zinbalatxoekin. Esku soinu eta panderoak osatzen duten bikotea trikitixa deituko dugu.

Baiona eta Urdiñarbe herriekin partaidetzan. Obren aurkezpena - Julie Charles, Maurice Ravel Iparraldeko Kontserbatorioko musika-kulturako irakaslea, Marie Bidart-en parte hartzearekin, Herri musiken sailko koordinatzailea / Diseinua - Iparraldeko orkestra eta Kultura eta Komunikazio Zerbitzua / Orkestraren ekoizpena - Iparraldeko orkestra eta Zerbitzu teknikoa / Irudiak - ©Iparraldeko Orkestra eta ©S.Bellocq - Sorkuntza grafikoa: Tactacom

# VOS PROCHAINS RENDEZ-VOUS AVEC L'ORCHESTRE DU PAYS BASQUE

## ZURE HURRENGO HITZORDUAK IPARRALDEKO ORKESTRAREKIN

<p>jeu. 23.02.23 &gt; 20h ven. 24.02.23 &gt; 20h sam. 25.02.23 &gt; 20h</p>	<p>Les fables de La Fontaine, musique pour orchestre</p>	<p>&gt;&gt; FORMAT CRÉATION</p>	<p>Bayonne St-Jean-Pied-de-Port Louhossoa</p>
<p>ven. 03.03.23 &gt; 20h ven. 10.03.23 &gt; 20h ven. 17.03.23 &gt; 20h</p>	<p>Si loin, si proche</p>	<p>&gt;&gt; MUSIQUE DE CHAMBRE</p>	<p>Errenteria Mouguerre Ossès</p>
<p>ven. 24.03.23 &gt; 20h</p>	<p>La symphonie du temps qui passe</p>	<p>&gt;&gt; FORMAT CRÉATION</p>	<p>Anglet</p>
<p>ven. 31.03.23 &gt; 20h ven. 07.04.23 &gt; 20h</p>	<p>Chefs d'oeuvre Tchèques</p>	<p>&gt;&gt; MUSIQUE DE CHAMBRE</p>	<p>La Bastide-Clairence Iholdy</p>
<p>ven. 21.04.23 &gt; 20h sam. 22.04.23 &gt; 20h</p>	<p>Immersions Électro acoustiques</p>	<p>&gt;&gt; FORMAT CRÉATION</p>	<p>Bayonne Hendaye</p>
<p>ven. 28.04.23 &gt; 20h sam. 29.04.23 &gt; 20h</p>	<p>Stabat Mater Haydn</p>	<p>&gt;&gt; ORCHESTRE SYMPHONIQUE</p>	<p>Ciboure Bayonne</p>
<p>ven. 05.05.23 &gt; 20h</p>	<p>Les révélations de la musique classique &amp; l'OSPB</p>	<p>&gt;&gt; ORCHESTRE SYMPHONIQUE</p>	<p>Anglet</p>



> INFORMATIONS ET BILLETTERIE EN LIGNE SUR [WWW.OSPB.EUS](http://WWW.OSPB.EUS) OU AU 05 59 31 21 78  
> ARGIBIDEAK ETA TXARTEL SALMENTA LINEAN HEMEN: [WWW.OSPB.EUS](http://WWW.OSPB.EUS) EDO 05 59 31 21 78